

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Euskararen Sarrera Goiztiarra	151330	2025-2026
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
Haur Hezkuntzako Gradua	3	1
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Aipamena. Hizkuntzen Sarrera Goiztiarra	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Itxaso Vazquez Villa ivazquez@bam.eus		

Justifikazioa

Gaur egun, haur askok euskararen jabekuntza neurri handi batean eskolan bereganatzen eta osatzen dute. Hori dela eta, ikasgai honetan hizkuntzaren garapenaren oinarri teorikoak ezagutzeaz gain, eskolak jabekuntza hori garatzeko proposatu beharko lituzkeen egoerak eta jarduerak aztertu eta diseinatu egiten dira.

Era berean, ikasgai honetan ikasleak euskararen jabekuntza prozesuaren aurrean hiru ardatzen inguruan antolatzen den hausnarketa egingo du: (1) etxetik eskolarako aldaketak, (2) haurraren eta irakaslearen arteko elkarrekintzaren garrantzia, eta (3) hizkuntzaren eraikitze afektiboa.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik.

Gaitasunak

GAITASUN OROKORRAK

- G.O.3. Pentsamendu kritikoa.:

G.O.3.2. Norbere iritziak eta besteenak koherentziaz aztertzea, eta norberarengan eta gizartean dituzten eraginak baloratzea.

BERARIAZKO GAITASUNAK

- B.G. 2. Ikasketa egoerak diseinatzea (bakarka edo beste ikasle batzuekin batera) hizkuntza helburuak lortzeko, Haur Hezkuntzako gela bakoitzeko bereizgarriak eta haurrek dituzten behar izanak kontuan izanda.
- B.G.4. Euskararen jabekuntzaren egoera desberdinen bereizgarriak ezagutu, Haur Hezkuntzako ikasleen hizkuntzaren garapena behatzeko eta beraiek egindako ekoizpenak baloratzeko.



Garapen Iraunkorreko Helburuak eta Laudato Si' Helburuak

Hezkuntza eta hizkuntzen ezagutza funtsezkoak dira gizartearen garatzeko. Are gehiago, hizkuntzaren eta hitz egiten den gizartearen arteko lotura garrantzitsua da, komunitatearen garapen integrala baitakar. Kasu honetan, euskararen irakaskuntzak bere presentzia eta onarpena bermatzen ditu, eta, gainera, hiztunen garapen pertsonal eta sozialari laguntzen dio. Horregatik, irakasgai honek honako GIHak zeharka ukituko ditu:



4. GIH. Kalitatezko hezkuntza: Kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzako aukerak bultzatzea guztientzat



Era berean, irakasgai honek honako LSH zeharka ukituko du:

6. LSH. Hezkuntza ekologikoa.

Eskola-hezkuntza onak bizitza osoan zehar eragina izan dezaketen haziak jartzen ditu.

Edukiak

1. GAIA: Euskararen sarrerara goiztiarra identifikatzen
 - H1 jabekuntza elebakarra
 - H1 jabekuntza elebiduna
 - H2 jabekuntza goiztiarra
 - H2 jabekuntza berantiarra
2. GAIA: Hizkuntza aldaketa eskolan
 - Harreraren garrantzia
 - H2 jabekuntzan eragiten duten aldagaiak
3. GAIA: Gelako esku-hartzea: interakzioaren garrantzia materialen erabileran
 - Interakzioaren oinarriak
 - Argitaletxeen materialen behaketa
 - Proposamen didaktikoa

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgai honetan landuko diren konpetentziak honako jardueren bitartez jorratuko dira:

- *Testuinguruan kokatzen laguntzeko jarduerak*
Ikasleak bigarren hizkuntzaren sarrera goiztiarrean bizi izandako esperientziak azaleratuko ditu honako arlo hauetan: ama hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren pertzepzioak eta zailtasunak, eskolan bigarren hizkuntzaren sarrera egiteko beharko liratekeen baldintzak, besteak beste.
- *Hausnarketarako behaketa*
Ikasleak hizkuntzaren garapena bultzatzeko jardunean dauden irakasleek erabiltzen dituzten estrategia eta baliabideez hausnartuko du.
- *Kontzeptualizaziorako jarduerak*
Ikasleak hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko bibliografia irakurriko du eta gelako hausnarketa eta eztabaidaren bidez, ondo arlo hauetako ezagutzen sintesia buruko du: hizkuntzaren jabekuntza egoera ezberdinak, euskara goiztiarraren ezaugarriak, irakaslearen rola gelako eskuhartzean, besteak beste.
- *Esperimentazio aktiboa*
Landutako kontzeptuak eta praktikaren arteko loturan sakontzeko, honako jarduerak egingo ditu ikasleak: euskararen sarrera goiztiarra eskolan nola egiten den jakiteko, jardunean dauden irakasleen esperientziak batuko ditu. Beste aldetik, gelako eskuhartze baten azterketa gidatua egingo du, hizkuntza helburuak, hauek lortzeko elkarrekintza egoerak eta irakasleak ematen dituen laguntzak identifikatzeko. Era berean, aztertutako egoera horretarako, ikasleak proposamen didaktiko diseinatuko du.
- *Ebaluazio jarduerak*
Ikasgai honetan, ebaluaketa formatiboaz gain, amaierako ebaluaketa ere izango da hurrengo atalean zehaztuko den bezala.

Ebaluazioa

- Irakasgaiaren ebaluazioa jarraitua izango da. Ikasleen ebaluazio jarraituko azken kalifikazioak irakasgaia eman den bitartean egindako ariketa, lan, praktika eta gainerako proben bidez egindako ebaluazioak hartuko ditu kontuan (Deustuko Unibertsitateko Ikasleen Araudiaren 8.3. artikulua).
- **OHIKO DEIALDIA**
 - Taldekako lanak: % 60
 - Klaseko jarduerak: %10
 - Azterketa (idatzizkoa zein aukera anitzeko testa) [banaka]: % 30
Azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezteak automatikoki ekarriko du deialdiari uko egitea eta «ez-aurkeztuta» kalifikazioa jasoko du.
- **IRAKASGAIA GAINDITZEKO EZINBESTEKOA DA EBALUAZIORAKO ATAL GUZTIAK GAINDITZEA.**

Irakasgaiko eskola orduen herenera (% 20) baino gehiagotara huts eginez gero, ikasleak ohiko deialdian kalifikatua izateko eskubidea gal dezake. Eskubide galera hori ez da gertatuko arrazoi justifikatua eta behar bezala komunikatua eta egiaztatua badago (Deustuko Unibertsitateko Ikasleen Araudiaren 27.3. artikulua).

- **EZOHIKO DEIALDIA**

Ikasleak ohiko deialdian ez gainditutako atala berreskuratu beharko du.

Azterketa berriro egin beharrekotan, ohiko deialdiko azterketaren egitura bera izango du. Azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezteak automatikoki ekarriko du deialdiari uko egitea eta «ez-aurkeztuta» kalifikazioa jasoko du.

OHARRAK:

a) Hizkuntza maila

Gainditzeko, ezinbestekoa izango da hizkuntza-maila egokia izatea. Zuzentasun ortografiko eta gramatikala erakusten ez duten lanak ez dira irakurriko eta zuzenean joango dira hurrengo deialdira.

b) Plagioa

Irakasgaiko jardueretan, ikerketa txostenean edota azterketan iruzur edota plagioa eginez gero, ohiko zein ezohiko deialdian suspentsoa izango du (Deustuko Unibertsitateko Ikasleen Araudiaren 28.2. artikulua).

c) Kalifikazioen gordetzea

Ikasturte batetik bestera ez da kalifikaziorik gordeko eta ikasleak berriz egin beharko ditu irakasgaia gainditzeko eskatutako jarduerak, portfolioa eta azterketa.

ADIMEN ARTIFIZIALAREN ERABILERA:

Jarduera hauetan: materialen azterketa eta sekuentzia didaktikoaren diseinuan, baimenduta dago adimen artifizialeko tresnak edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea, eta nahitaezkoa da dagozkien iturriak, erabilitako tresnak eta erabileraren deskribapena jasotzea.

Dokumentazioa

- Ada, A. F., Campoy, F. I. eta Baker, C. (2017). *Guía para padres y maestros de niños bilingües*. Multilingual Matters.
- Baker, C. (2001). *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism*. Multilingual Matters.
- Barreña, A. (2012). "Fonologiaren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren garapena haur euskaldunengan". Mendebalde Kultur Elkartea (arg.) *Hizkuntzaz jabetzen (0-6). XVI Jardunaldiak*. Bilbo.
- Bhatia, T. K. eta Ritchie, W. C. (ed.) (2004). *The Handbook of Bilingualism*. Blackwell.
- Bigas, M. (2001). "El lenguaje oral en la educación infantil". En M. Bigas & M. Correig (eds.) *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Síntesis, Madrid
- Bigas, M. eta Correig, M. (ed.) (2001). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Síntesis.
- Bilbao, X. (1998). *Hezkuntza elebiduna: zenbait oinarri*. Arabako Foru Aldundia.
- Cenoz, J. (2008). *Teaching through Basque. Achievement and Challenges*. Multilingual Matters.
- Cenoz, J. eta Genesee, F. (2001). *Trends in bilingual acquisition*. John Benjamins.
- Clemente, R. A. (1995) *Desarrollo del lenguaje*. Octaedro, Barcelona.
- Cummins, J. (1998). "Immersion education for the millenium: what we have learned from 30 years of research on Second Language Immersion". In M.R. Childs & R.M. Bostwick (Eds.) *Learning through two languages: research and practice. Second Katoh Gakuen International Symposium on Immersion and Bilingual Education*. Katoh Gakuen, Japan. 34-47.
- Cummins, J. (2001). *Language, Power and Pedagogy. Bilingual Children in the Crossfire*. Multilingual Matters.
- Cummins, J. (2007). "Rethinking monolingual instructional strategies in multilingual classrooms", *Canadian Journal of Applied Linguistics* 10.2, 221-240.
- Cummins, J. (2021). *Rethinking the education of multilingual students: A critical analysis of theoretical claims*. Multilingual Matters.
- De Houwer, A. (2009). *Bilingual First Language Acquisition*. Multilingual Matters.
- Grosjean, F. eta Ping, L. (2013). *The Psycholinguistics of Bilingualism*. Wiley-Blackwell.
- Huarte, M. eta Ozerinjuregi, J. (2012). "Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean". Mendebalde Kultur Elkartea (arg.) *Hizkuntzaz jabetzen (0-6). XVI Jardunaldiak* (183-208). Bilbo.
- Idiazabal, I. eta Barreña, A. (arg.) (2009). Ikasteredu elebidunak eta euskararen azterketan (iker) molde berriak. *Euskera* 54(2-1), Euskaltzaindia.
- Lightbown, P. M. eta Spada, N. (2006). *How languages are learned*. Oxford University Press.
- McLaughlin, B. (1995). Fostering second language development in young children: principles and practices. *NCRDCSLL Educational Practice Reports, UC Berkeley: Center for Research on Education, Diversity and Excellence*. <https://escholarship.org/uc/item/23s607sr>
- Meisel, J. M. (2006). The Bilingual Child. In T. K. Bahtia & W. C. Ritchie (ed.) *The handbook of bilingualism* (90-113). Blackwell.
- Meisel, J. M. (koord.) (1994). *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Vervuert.
- O'Grady, W. (2010). *Cómo aprenden los niños el lenguaje*. Akal.
- Ruiz Bikandi, U. (koord.) (2000). *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*. Síntesis Educación.
- Ruiz Bikandi, U. (koord.) (2010). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. EHU/UPV.
- Serra, M., Serrat, E., Solé, R., Bel, A. eta Aparici, M. (2001). *La adquisición del lenguaje*. Ariel.
- Shin, S. J. (2013). *Bilingualism in Schools and Society. Language, Identity, and Policy*. Routledge.
- Siguan, M. (koord.) (1996). *La enseñanza precoz de una segunda lengua en la escuela*. Universitat de Barcelona, Institut de Ciències de l'Educació, ICE / Horsori.
- Wright, W. E., Boun, S. eta García, O. (ed.) (2015). *The Handbook of Bilingual and Multilingual Education*. Wiley-Blackwell.
- Zabaleta, F. (1994) *Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza murgiltze-ereduan*. Zubia.

Eskolako materiala:

- URTXINTXA PROIEKTUA. Elkar / Ikastolen Elkartea.
- TIC-TAC PROIEKTUA. Giltza – Edebé taldea.
- BITXITARRAK PROIEKTUA. Zubia – Santillana taldea.
- UKIMUGI PROIEKTUA. Ibaizabal Argitaletxea.